

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Jiménez presidenteordea TSJNko presidentearekin elkartu da Justizia Jauregian

*Presidenteari elkarrizketarako eta adostasunera iristeko duen gogoia adierazi dio, baita bi instituzioen artean lan egiteko funtsezko formulak ere*

Martes, 19 de julio de 2011

Roberto Jiménez Alii lehen presidenteorde eta Nafarroako Gobernuko Lehendakartzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilariak, gaur eguerdian, Juan Manuel Fernández Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko presidentearekin elkartzeko, instituzioen arteko lehen bisita egin du. Harek Iruñeko Justizia Jauregian duen bulegoan elkartu dira. Presidenteari elkarrizketarako eta adostasunera iristeko duen gogoia adierazi dio, baita bi instituzioen artean lan egiteko funtsezko formulak ere.



Jiménez presidenteordea (eskuinean), TSJNko presidentearekin egin duen bileran

TSJNko presidenteak Justizia Administrazioaren egoera azaldu dio kontseilariari, oro har. Besteak beste, justiziako funtzionarioen lan kargak, krisialdia dela eta (lanetik botatzeak, hipoteken betearazpenak, bidaltzeak, etab.), azken hiru urteetan esponentzialki gora egin duela eta lan karga hori betetzen dutenen % 33 bitarteko langileak direla azpimarratu du. Horrez gain, Juan Ramón Fernándezek nabarmendu du, azken zazpi urteetan, Espainiako Gobernuak inoiz baino epaitegi gehien sortu dituela. Nafarroan, zehazki, % 25 egin dute gora. Foru Erkidegoa auzi judizialak ebazteko orduan azkarrenetarikoa da Espainian, beste parametro batzuen artean.

Jiménez presidenteordeak, bestalde, adierazi du, bere departamentuaren asmoa Nafarroako Justizia Administrazioari behar duen bultzada politikoa ematea dela, hasierako postuetan egon arren, estatuko erreferentea izan dadin.

Bileran, halaber, Bulego Judiziala ezartzeko aukera ere eztabaidatu dute. Horren inguruan, kontseilariak esan du bulegoa pixkanaka ezarri behar dela uste duela, eta ez behin-behinean. "Pixkanaka ezarri beharrek da, sortzen diren arazoak konpontzen diren heinean. Lanpostuen zerranda berriz zehaztu eta behar diren lekuak ezarri behar

dira, zerbitzuak optimizatzeko", esan du Roberto Jiménezek.